## 3.1. DIRULAGUNTZA LERROA. IKASTXEAK – 2020. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

## LÍNEA DE SUBVENCIÓN 3.1. CENTROS ESCOLARES - 2020. BASES ESPECÍFICAS.

**1.- Dirulaguntzaren xedea**

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, Errenterian kokaturiko ikastetxeek antolaturiko hezkuntza alorreko jarduera programak kofinantzatzeko helburuarekin. Horrez gain, horien helburuek bat etorri beharko dute Udalaren Hezkuntza azpisailak dituenekin.

**1.- Objeto de la subvención**

El objeto de esta línea es la concesión de subvenciones para cofinanciar e impulsar programas de actividades educativas en Errenteria, organizadas y llevadas a cabo por centros escolares radicados en el municipio, y cuyos fines sean acordes con los objetivos de la subárea de Educación del Ayuntamiento.

**2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehienezko kopurua**

Hezkuntza alorreko jarduerak kofinantzatzeko dirulaguntzen zenbatekoa 2020ko aurrekontuko ondorengo partidaren kontura izango da; betiere, partida horretako zenbateko osoa asetzeko partida nahikoa esleitzen bada:

– 1.0630.471.02.326.20: dirulaguntzak: Ikastetxeak, IGE, hezkuntza entitateak, aurreikusi gabeko jarduerak, 2020ko aurrekontuari dagokiona.

Diruz lagunduko den lerro honetarako dagoen aurrekontua 20.000,00 €koa da.

Dirulaguntza deialdia hau onartzen den unean 2020ko aurrekontua izapidetzen ari bada ere, espedientean jasoa dago alkateak aurkeztu duen aurrekontu proiektuak aurreikusten duela aipaturiko partida.

Dirulaguntzaren diru-kopuruak inoiz ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez bakarrean, ezta aldi berean beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edo baliabideekin.

**2.- Créditos presupuestarios a los que se imputa la subvención y cuantía total máxima de las subvenciones**

El importe de las subvenciones para cofinanciar programas de actividades educativas irá con cargo a la siguiente partida del presupuesto del año 2020, de forma que el importe global de las mismas queda condicionado a que se consigne partida presupuestaria suficiente:

– 1.0630.471.02.326.20: Subvenciones: Centros Escolares, AMPA, entidades, actividades no previstas del ejercicio 2020.

La disponibilidad presupuestaria para esta línea de subvención asciende a 20.000,00 €.

Si bien el presupuesto de 2020 se encuentra en tramitación en el momento de aprobarse la presente convocatoria de subvención, consta en el expediente que el proyecto de presupuesto presentado por el Alcalde contempla la partida mencionada.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

**3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era**

Oro har, dirulaguntzetarako aukera izan dezakete hezkuntza intereseko jarduerak gauzatzen dituzten Errenterian kokaturiko ikastetxeek.

Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskatzaileek ERRENTERIAKO UDALAK 2020 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN seigarren oinarrian adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengoa ere aurkeztu behar dute eskaerarekin batera:

a) Eskaera egin duen elkarte edo entitatearen estatutuak. Baldin eta lehendik aurkeztu ez badira edo aldaketaren bat egin baldin bada.

b) Egitasmoa, programa eta egin nahi diren jardueren aurrekontu zehatza.

**4.- Eskabideak aurkezteko epea**

Aurreikusitako jarduera programetarako dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea irekiko da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean, eta amaituko da 2020ko otsailaren 1ean.

**5.- Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Eskabideak baloratzeko irizpidea norgehiagoka izango da. Beraz, eskari guztietan ondoko irizpide objektiboak ezarriko dira:

Helburu honetarako urtero onartzen den aurrekontu partidako kopurua onartutako eskaera guztiei emandako puntuen baturarekin zatituko da, eta horrela puntu bakoitzaren balore ekonomikoa kalkulatuko da. Puntu bakoitzaren balore ekonomiko hori eskari bakoitzak lortutako puntu kopuruarekin

**3.- Personas beneficiarias, requisitos para solicitar la subvención y forma de acreditarlos**

Con carácter general podrán optar a las subvenciones los centros escolares radicados en Errenteria que realicen actividades de interés educativo.

Documentación a presentar con la solicitud:

Los o las solicitantes deberán presentar con la solicitud, además de la documentación establecida en la base sexta de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2020, la siguiente documentación:

a) Estatutos de la asociación o entidad solicitante. Si no han sido presentados con anterioridad o si han sufrido alguna modificación.

b) Proyecto, programa y presupuesto específico de las actividades a subvencionar.

**4.- Plazo de presentación de solicitudes**

El plazo de presentación de las solicitudes de subvención para programas de actividades previstas estará abierto desde el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 1 de febrero de 2020.

**5.- Criterios de valoración de las solicitudes**

El criterio de valoración de las solicitudes será el de concurrencia competitiva. Por lo tanto, en todas las solicitudes se aplicarán los siguientes criterios objetivos:

La partida presupuestaria aprobada anualmente para este concepto se dividirá entre la suma de puntos otorgados a todas las solicitudes admitidas, y así se calculará el valor económico de un punto. Este valor económico de cada punto se multiplicará por los puntos conseguidos por cada solicitud, lo que

biderkatuko da, eta horrek emango digu jaso beharreko diru kopuruaren zenbatekoa.

determinará la cuantía a percibir.

| | | |
|---|---|---|
| **IKASTETXE ESKATZAILEARI DAGOZKIONAK** | **(19)** | *EN CUANTO AL CENTRO ESCOLAR SOLICITANTE* |
| **Ikasle kopurua** | **(8)** | *Nº de alumnas y alumnos* |
| **Ikasle kopurua** | (5) | *Nº de alumnas y alumnos* |
| …. – 500 | 1 | …. – 500 |
| 501 – 700 | 2 | 501 – 700 |
| 701 – 1000 | 3 | 701 – 1000 |
| 1001 – 1300 | 4 | 1001 – 1300 |
| 1301 – …. | 5 | 1301 – …. |
| **Neska / mutil kopurua** | (3) | *Número de niñas / niños* |
| Orekatua (% 40 – 60) | 3 | Equilibrio (40 – 60 %) |
| Desoreka | 1 | Desequilibrio |
| Neskak / mutilak soilik | 0 | Sólo niñas / niños |
| **Jarduera kolektiboetan eta/edo udal jardueretan parte hartzea** | **(5)** | *Participación en actividades colectivas y/o municipales* |
| Errege kabalgata | 1 | Cabalgata de Reyes |
| Inauterietako Batzordea | 1 | Comisión de Carnavales |
| San Marko eguna | 1 | Día de San Marcos |
| Madalenetako Jai Batzordea | 1 | Comisión de Madalenas |
| Atlantikaldia | 1 | Atlantikaldia |
| Santomas | 1 | Santo Tomás |
| Olentzero | 1 | Olentzero |
| Auzoetako jaiak | 1 | Fiestas de barrios |
| OarsoIrriak | 1 | OarsoIrriak |
| …......................... | 1 | …......................... |
| **Finantza baliabideak** | **(6)** | *Recursos financieros* |
| Autofinantzazioa (%) | | Autofinanciación (%) |
| % 40 – 50 | 1 | 40 – 50 % |
| % 51 – 60 | 2 | 51 – 60 % |
| % 61 – 70 | 3 | 61 – 70 % |
| % 71 – 80 | 4 | 71 – 80 % |
| % 81 – 90 | 5 | 81 – 90 % |
| % 91 – 100 | 6 | 91 – 100 % |
| **PROGRAMA / JARDUERAREN INGURUKOAK** | **(84)** | *EN CUANTO AL PROGRAMA / ACTIVIDAD* |

| | | |
|---|---|---|
| **Programaren izaera eta aldizkakotasuna** | **(10)** | *Naturaleza y periodicidad del programa* |
| Jarduera programa: 2018/2019 ikasturtean egingo diren jardueren zerrenda | (5) | *Programa de actividades: relación de actividades previstas para el curso 2018/2019* |
| 0,5 puntu jarduera bakoitzeko | | 0,5 puntos por cada actividad |
| Programaren iraupena eta aldizkakotasuna | (5) | *Duración y periodicidad del programa* |
| Urtean zehar | 5 | A lo largo del año |
| Noizbehinkako jarduerak | 3 | Varias actividades puntuales |
| Urtean behineko jarduera | 1 | Actividad anual puntual |
| **Programaren kalitatea: hezkuntza, genero eta kulturaniztasun ikuspegia** | **(30)** | *Calidad del programa: perspectiva educativa, de género e intercultural* |
| **Programa hezitzailea** | (10) | *Programa educativo* |
| Balore indibidualen ordez kolektiboak sustatzea | 4 | Potenciar los valores colectivos, en lugar de los individuales |
| Bazterketa egoerak pairatzen dituzten kolektibo edo/eta norbanaekiko errespetuzko eta elkartasunezko jarrerak sustatzea | 4 | Promover actitudes de respeto y solidaridad hacia colectivos y/o personas en situación de exclusión social |
| Jardueren antolakuntzan sustatzea subjektu aktibo bilakatzea kide oro | 2 | Promover la transformación de todas y todos los miembros en sujetos activos a la hora de organizar las actividades |
| **Genero ikuspegia** | (10) | *Perspectiva de género* |
| Hizkuntza ez sexistari erreparatzea | 2 | Uso no sexista del lenguaje |
| Rolak deseraikitzeko ekintzak | 4 | Actividades dirigidas a la deconstrucción de roles |
| Nesken parte hartze aktiboa sustatzea | 4 | Promover la participación activa de las niñas |
| **Kulturaniztasuna** | (10) | *Interculturalidad* |
| Ikastetxeak antolatzen dituen ekintzetan kultur adierazpen ezberdinak txertatzea | 3 | Incluir expresiones culturales diversas en las actividades organizadas por el centro escolar |
| Ikastetxeko langileek kulturarteko hezkuntzan formazioa jasotzea / eskaintzea | 1 | Las y los trabajadores del centro escolar reciben / imparten formación en educación cultural |
| Ikastetxeak dituen gune, material... kulturarteko begirada txertatzea | 3 | Incluir la perspectiva intercultural en los espacios, materiales etc. del centro escolar |
| Ikastetxeko elkarbizitzan eragiteko ekintzak antolatzea | 3 | Organización de actividades para incidir en la convivencia del centro escolar |
| **Programa / jarduera euskaraz garatzea** | **(8)** | *Desarrollo del programa / actividad en euskera* |
| Ele bitan | 4 | Todo en bilíngüe |
| Euskara hutsez | 8 | Todo únicamente en euskera |
| **Jarduera berriak, berritzaileak eta antzekorik ez izatea** | **(4)** | *Actividades nuevas, novedosas e inexistencia de actividades similares* |

| | | |
|---|---|---|
| 0,5 puntu jarduera bakoitzeko | | 0,5 puntos por cada actividad |
| **Herritarren esku-hartzea sustatzea, beste ikastetxe, entitate eta eragile batzuekin lankidetza** | **(12)** | *Promoción de la participación ciudadana, colaboración con otros centros escolares, entidades y agentes* |
| **Herritarrei parte hartzeko aukera ematea** | (5) | *Oportunidad para la participación ciudadana* |
| 0,5 puntu jarduera bakoitzeko | | 0,5 puntos por cada actividad |
| **Jarduera entitate batek baino gehiagok antolatzea** | (2) | *Actividad organizada por más de una entidad* |
| 0,5 puntu jarduera bakoitzeko | | 0,5 puntos por cada actividad |
| **Boluntarioen lana** | (5) | *Trabajo de voluntarias y voluntarios* |
| 0,5 puntu jarduera bakoitzeko | | 0,5 puntos por cada actividad |
| **Hartzaileak** | **(15)** | *Destinatarias y destinatarios* |
| Ikasleei zuzendutako jarduerak | 10 | Actividades dirigidas a las y los alumnos |
| Ikasleen familiei zuzendutako jarduerak | 5 | Actividades dirigidas a las familias de las y los alumnos |
| Hezkuntza komunitateari zuzendutako jarduerak | 5 | Actividades dirigidas a la comunidad educativa |
| **Programaren proiekzioa** | **(5)** | *Proyección del programa* |
| Soilik ikastetxearen inguruko proiekzioa | 2 | Únicamente con proyección en el entorno del centro escolar |
| eta herri mailako proiekzioa | 2 | y en el municipio |
| eta eskualde mailako proiekzioa | 1 | y en la comarca |

**6.- Dirulaguntza ordaintzea**

Dirulaguntza diru-kopuruak era honetan ordainduko dira:

% 60 dirulaguntzak esleitzeko ebazpenaren ondoren, aurrerakin gisa, eta aurkezturiko jarduera programa gauzatzeko baldintzarekin.

% 40 egindako gastua justifikatzeko dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

**7.- Dirulaguntzaren justifikazioa**

Dirulaguntzaren bigarren ordainketa diruz lagundutako programa edo jarduera justifikatzeko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Justifikazio hori aurkezteko epe muga 2021ko urtarrilaren 31 izango da.

**6.- Abono de la subvención**

Los importes de subvención serán abonados de la siguiente forma:

60 % tras la resolución de asignación de subvenciones, con carácter de anticipo, y condicionado a la ejecución del programa de actividades presentado.

40 % tras presentación de la documentación correspondiente a la justificación del gasto realizado.

**7.- Justificación de la subvención**

El segundo pago de la subvención queda condicionado a la presentación de la documentación justificativa del programa o actividad subvencionada, con fecha límite 31 de enero de 2021.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, ERRENTERIAKO UDALAK 2020 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN hamazazpigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

a) Programaren edo diruz lagunduriko jardueraren memoria zehatza.

b) Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.

**Ohar garrantzitsua**: deialdi hau egin da ERRENTERIAKO UDALAK 2020 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.

En concreto la documentación a presentar será la siguiente, además de la establecida en la base decimoséptima de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2020:

a) Memoria detallada del programa o actividad subvencionada.

b) Documentación gráfica (carteles, programas) o audiovisual.

**Nota importante**: esta convocatoria deviene de las BASES GENERALES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA DURANTE EL AÑO 2020. En todo lo no especificado aquí, debe acudirse a aquellas.